

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Egoitza guztiz amaituta dagoenean inaugurazio bat egingo dugu dohainik izango dena. Inaugurazioa Espainiako Herritarrentzako izango da baina Almerian bertan bizi diren pertsonen lehentasuna emango zaie. Erakargarriagoa izateko, azkari bat prestatuko dugu eta amaitzeko dantza egongo da. Modu honetan jendea gure instalazioak eta sistema ikusiko du eta horrela gure egoitza pixkanaka pixkanaka zabalduko da. Horrez gain, propaganda osasun zentroetan, hirugarren adineko pertsonentzako tabernetan... egingo dugu.

Banaketa enpresa desberdinekin egingo dugu, gure bezeroek behar dituzten zerbitzuak eta produktuak eskura izateko.

Jantokiko janaria “Servicio De Catering Tm&e” enpresak ekarriko digu. Enpresa hau hautatu dugu bere janaria tradizionala delako eta horrez gain, alergiak dituzten pertsonentzat menu bereziak dituzte.

Gure osasun zentroan anbulantzia pribatua izango dugu, larrialdi bat egonez gero hospitalera arinago heltzeko. Horretarako “Ambulancias SSG-Almeria” enpresa kontartatuko dugu.

Azkenik, gure bezeroak adin nagusikoak direnez, gure itxituretik atera behar ez izateko eta elikagaiak zein beste produktu batzuk eskuragarri izateko, “Consum” supermerkatu bat jarriko dugu.

Oasis Paradisuak web orri bat izango du, OasisParadisua.com deiturikoa. Honekin, kanal zuzena eskainiko diegu gure bezeroei, izan ere, web orrialdearen bidez duda guztiak argituko zaizkie. Horrez gain, web orrialdean prezioak eta ditugun zerbitzuak azalduko zaizkie. Web orrialdearen bitartez, bidaiak edo irteerak egitekotan inskribatu egin ahalko dira eta bidaiari buruzko informazio guztia aurkituko dute.

Gure bezeroek Oasis Paradisua aukera dezaten, gure eginkizuna informazioa biltzea izango da. Modu honetan, esperientzia errepikagarriak izango eta dibertigarriak dituzte eta aldi berean ez dira bakarrik sentituko.

